



AKTA

Aiarako Kuadrillaren **TOKIKO GOBERNU BATZARAK** telematikoki egindako ohiko bilkurarena,

2021eko maiatzaren 19koa

Organo honetako kideen bilkura telematikoa egin da bideokonferentziaren bidez **13:21ak** direnean, eta jarraian zerrendatzen diren batzarkideak telematikoki elkartu dira **ohiko bilkura** egiteko **lehenengo deialdian**. Aiarako Kuadrillako Tokiko Gobernu Batzarreko presidente **Encina Castresana Astarloa andrea** izan da bilkuraren burua eta Gianfranco Ghiro Alonso jauna, behean izenpetzen duena, aritu da aldi baterako idazkari lanetan.

Jarraian aipatutako jaun-andre batzarkideak bideokonferentzia saiora konektatu dira:

Encina CASTRESANA ASTARLOA and. (EAJ-PNV)
Gentza ALAMILLO UDAETA jn. (EAJ-PNV)
Ander AÑIBARRO MAESTRE jn. (EAJ-PNV)
Jon ESCUZA DEL CAMPO jn. (EAJ-PNV)

Ez da bertaratu eta ezin etorria justifikatu du:
Joseba VIVANCO RETES jn. (EH BILDU)
Txerra MOLINUEVO LAÑA jn. (EAJ-PNV)

Ez dira bilkurara bertaratu Talde Politiko Batzarkideetako bozeramaileak, gonbidatuak izan arren.

Gonbidatu bezala Eduardo Saratxaga jn. (EAJ-PNV) bertaratu da.

Gainera, Kuadrillako teknikari gisa Urresti, Amurrio eta Arbaizagoitia andreak telematikoki bertaratu dira, bere arloko puntuak azaltzeko.

Bilkura modu telematikoan ezarri da martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren azken xedapenetako bigarrenean ezarritakoaren arabera. Horrek Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du, zehazki 46. artikuluko 3. atalean, organo honen bilkurak telematikoki egitea ahalbidetzeko, aintzat hartuta Covid-19ak egun sortutako ezohiko osasun-egoera.

Kuadrillako presidente andreak, **13:21ean**, osoko ohiko bilkura irekita dagoela adierazi du, **lehenengo deialdian**, idazkariak bilera abiarazi ahal izateko quoruma badagoela egiaztatu ondoren, Eskualdeei buruzko Foru Arauaren



(azaroaren 20ko 63/1989 Foru Araua) 25. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, besteak beste abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldarazitako Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/1985 Legea) 46.2.c) artikuluari lotuta. Presidente andreak hasteko agindua eman du, aztergaien zerrendari jarraituz.

1.- IRAKURTZEA ETA ONESTEA, BIDEZKOA BADA, AZKENEKO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA.

Deialdiarekin batera, egindako azken bilkuraren aktaren zirriborroa erantsi da, hori aztertzeko, eta ez dagoenez inongo alegaziorik, **ERABAKI DA**, aho batez, 2021eko maiatzaren 05eko bilkuraren akta onestea.

2.- EMAKUMEEN OSASUN KANPAINARI BURUZKO HITZALDIAREN ESLEIPENA.

Urresti andreak azaldu du, Tokiko Gobernu Batzarrean, 2021eko otsailaren 17an, Arabako Foru Aldundiari berdintasun-jardueretarako dirulaguntza eskatzeko aurkeztutako proposamenari jarraikiz, emakumeen osasunari buruzko hausnarketa egiteko hitzaldia egitea proposatzen dela.

Informazioa eta eztabaida bukatuta, aho batez **ERABAKI DA AKORDIO HAU hartzea** :

IKUSI DA berdintasun teknikariak egindako txostena.

IKUSI DA 230 226991 partidaren kreditu nahikoa dagoela.

ERABAKI DA:

LEHENENGOA.- Emakumeen Osasunari buruzko hitzaldia esleitzea María Teresa Serrano Fuertes andreaki (IFZ: 18429866N) HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA HIRU EUROko kopuruan (363,00 €) BEZ barne.

3.- EUSKARA GIZARTERATZEKO DFA-AIARAKO KUADRILLA HITZARMENAREN ESPARRUAN 2021 PROPOSAMENAK ONESTEA, HALA BADAGOKIO.



Amurrio andreak jakinarazi du DFArekin 2020. urtean euskara sozializatzeko lau urterako sinatutako hitzarmenaren bigarren puntuak jasotzen duela urtero jarduera-plana eta urteko programa onartzeko betebeharra.

Arabako Foru Aldundiak 2021eko Gastuen Aurrekontuan bere partida jarri du euskara sustatzeko. Horretarako, bere Diputatu Nagusiaren Sailak eta Lurraldeko Kuadrillek lankidetzeta-hitzarmena sinatu dute, kuadrilla bakoitzari 6.500,00 euroko ekarpena egiteko (% 100eko finantzaketa), euskararen bidez sozializazioa bultzatzen duten programak garatzeko.

Hitzarmenaren hirugarren puntuan jasotzen denez, ekarpen hori urteko planarekin batera onetsiko da.

Honekin batera **II. eta III. ERANSKIN** gisa ageri dira jarduera-planaren zirriborroak eta urteko programa (euskaraz), aztertuak izateko. **Aiaraldea euskaraz programa** eta **Euskaltegian matrikulatzeko kanpainarako bideoa** garatzeko laguntza ematea proposatzen da.

GASTUAK		SARRERAK	
Aiaraldea euskaraz	5.500,54 €	AFaren eta Aiarako	6.500,00 €
Euskaltegian matrikulatzeko kanpainarako bideoa	999,46 €	Kuadrillaren arteko hitzarmena	
GUZTIRA	6.500,00 €	GUZTIRA	6.500,00 €

Informazioa eta eztabaida bukatuta, aho batez **ERABAKI DA AKORDIO HAU** hartzea:

LEHENENGOA.- DFAk eta Aiarako Kuadrillak sinatutako hitzarmenaren barruan, euskara gizarteratzeko 2021. urteko programa eta jarduera-plana onestea; bere zenbatekoa 6.500,00 eurokoa da.

BIGARRENA.- zenbateko hori erabiltzea **Aiaraldea euskaraz programa** eta **Euskaltegian matrikulatzeko kanpainarako bideoa** garatzeko.



4.- HALA BADAGOKIO, ONESTEA BFAko INGURUMEN SAILARI MATERIA ORGANIKOAREN BILKETA ETA KUDEAKETA BULTZATZEKO LAGUNTZA-ESKAERA.

Arbaizagoitia andreak jardueren aurkezpena egin du, eta jakinarazi du 2021eko apirilaren 23ko 44. ALHAOk apirilaren 13ko Foru Gobernu Kontseiluaren 205/2021 Erabakia jasotzen duela. Erabaki horren bidez, Arabako Lurralde Historikoan 2021 eta 2022 ekitaldietarako hondakin organikoaren bilketa eta kudeaketa ezartzeko dirulaguntzen planaren deialdia onetsi dela.

Deialdi honek, berritasun gisa, 2 urteko epea ezartzen du Aiarako Kuadrillaren barruan materia organikoa bildu eta kudeatzeko ekintzak gauzatzeko. Horretarako, 44.000 euroko partida eta 125.000 eurokoa ditu 2021erako eta 2022rako, hurrenez hurren. Ekintza hauek urte bakoitzerako planteatu beharko dira eta urte bakoitzeko abenduaren 1a baino lehen gauzatu beharko dira. Diruz lagundu ahal den portzentajea %70ekoa izango da gehienez, BEZ barne, eta/edo gehienez ere seirena.

Hori guztia kontuan hartuta, labor bilduta ekintza hauek egiteko laguntza eskatu nahi da:

2021. URTEA

Etxeko kitak: 2.571,25 €

10 litroko poltsak: 3.796,50 €

40 litroko poltsak: 1.287,89 €

Kitak ematea: 3.850,00 €

Kanpaina ertainak (Radio Llodio): 1.917,85 €

Konpostaje eta laguntza ikastaroak: 7.895,25 €

Edukiontzien leasing-kuota: 15.467,88 €

Konpostagailuak: 7.411,25 €

Konpostaje komunitarioko eremuak: 6.000,00 €

GUZTIRA 50.197,87 €

2022. URTEA

10 litroko ontziak: 2.500 €

40 litroko ontziak: 800 €



120 litroko ontziak: 800 €
 10 litroko poltsak: 11.390 €
 40 litroko poltsak: 2.576 €
 Itxiera elektronikoak eta softwarea: 45.000,00 €
 Txartelak: 6.000,00 €
 Poltsak saltzeko makinak: 14.000,00 €
 Kanpaina: 10.000,00 €
 Konpostaje eta laguntza ikastaroak: 5.000,00 €
 Edukiontzien leasing-kuota: 15.467,88 €
 Konpostaje komunitarioko eremuak: 15.000,00 €
 Konpostagailuak: 7.411,25 €
GUZTIRA: 135.944,41 €

Informazioa eta eztabaida bukatuta, aho batez **ERABAKI DA AKORDIO HAU** hartzea:

LEHENENGOA.- Arabako Lurralde Historikoan hondakin organikoaren bilketa eta kudeaketa ezartzeko dirulaguntza onestea AFaren 2021 eta 2022 ekitaldietarako, proiektu hauek barne:

2021

	€
Etxeko kitak	2.571,25 €
10 litroko poltsak	3.796,50 €
40 litroko poltsak	1.287,89 €
Kitak ematea	3.850,00 €
Kanpaina ertainak (Radio Llodio)	1.917,85 €
Konpostaje eta laguntza ikastaroak	7.895,25 €
Edukiontzien leasing-kuota	15.467,88 €
Konpostagailuak	7.411,25 €
Konpostaje komunitarioko eremuak	6.000,00 €
	50.197,87 €

2022

	€
10 litroko ontziak	2.500 €
40 litroko ontziak	800 €



120 litroko ontziak	800 €
10 litroko poltsak	11.390 €
40 litroko poltsak	2.576 €
Itxiera elektronikoak eta softwarea	45.000,00 €
Txartelak	6.000,00 €
Poltsak saltzeko makinak	14.000,00 €
Kanpaina	10.000,00 €
Konpostaje eta laguntza ikastaroak	5.000,00 €
Edukiontzien leasing kuota	15.467,88 €
Konpostaje komunitarioko eremuak	15.000,00 €
Konpostagailuak	7.411,25 €
	135.945,13 €

5.- HALA BADAGOKIO, ONESTEA INGURUMEN SAILEKO ESLEIPEN-PROPOSAMENAK.

Arbaizagoitia andreak azaldu duenez, Aiarako Kuadrillako etxeetan elikagaien xahuketa arazoa dela ikusarazteko, eta egindako kuantifikazio-proiektuaren esparruan, triptiko bat inprimatzea eta postontzietan sartzea proposatzen da. Postontzietan banatuko dira Aiarako Kuadrillako 16.000 etxeetan.

Horretarako, aurrekontu banakatua eskatzen da inprimaketa lanak egiteko eta banatzeko honako hauei: Graficas Txindoki, ADI grafik eta Errotulu Merinoei banatzeko. Halaber, Akropost eta Correos-i aurrekontua eskatu zaie postontzietan sartzeko. Laburbilduz, BEZik gabeko prezio hauek jaso dira:

	Impresioa	Poztontzietan jartzea	Guztira
ADI grafik	954 €	940 €	1894,17 €
Graficas Txindoki	487 €	Ez du aurkeztu	487 €
Graficas Merino	Ez du aurkeztu	Ez du aurkeztu	Ez du aurkeztu
Akropost	-	1.520 €	1.520 €
Correos	-	1.050 €	1.050 €

Prezioa eta entrega-epeak kontuan hartuta, inprimatze-lanak Graficas Txindokiri esleitzea proposatzen da, 487 € gehi BEZa prezioan, eta postako banaketa 1.050 € gehi BEZa prezioan, 992,2 € guztira. Esleipen horiek EJren dirulaguntza dute, eta "Ingurumena Hobetzeko Proiektuak" izeneko partidan aplikatuko da.



Informazioa eta eztabaida bukatuta, aho batez **ERABAKI DA AKORDIO HAU hartzea** :

IKUSI DA Aiarako Kuadrillako etxeetan janari-hondakinen arazoa ikusgai jartzeko beharra

IKUSI DA 1720 226999 partidan kreditu nahikoa dagoela.

ERABAKI DA:

LEHENENGOA.- Onestea triptikoaren inprimatzearen esleipena **GRAFICAS TXINDOKI** enpresari (IFK: B01249499 IFK), berak aurkeztutako aurrekontuaren arabera, **BOSTEHUN ETA LAUROGEITA BEDERATZI EURO ETA HOGEITA ZAZPI ZENTIMO (589,27 €) BEZ** barne.

BIGARRENA.- Onestea triptikoaren postontzietako banaketa **CORREOS** enpresari (IFK: A83052407) aurkeztutako aurrekontuaren arabera. Zenbatekoa: **MILA ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI EURO (1.078,00 €), BEZ** barne.

6.- AIARAKO KUADRILLAN EKONOMIA ZIRKULARRA BULTZATZEKO PROIEKTU BERRIA PROPOSATZEA.

Arbaizagoitia andreak kafe-kapsulen aprobetxamenduan oinarritutako ekonomia zirkularrean oinarritutako proiektu berri bat ezartzeko aukerari buruzko aurkezpena egin du. Jasotako proposamena azaldu da eta zerbitzu berri hau emateko erosi beharko liratekeen edukiontzien berri eman da. Zerbitzua hainbat tokitan eman daiteke, udalerrietan eta/edo garbiguneetan. Lortutako materialen balizko erabilerak ere azaltzen dira.

7.- HALA BADAGOKIO, ONESTEA GARBIGUNERAKO IBILGAILUAK PISATZEKO BASKULA ELEKTRONIKO BATEN HORNIDURAREN ESLEIPENA.



Sucesores de Pavon SL enpresak dokumentazioa igorri ondoren, kontratazio-mahaiak baztertu egin du, ez baita lizitazioan parte hartzeko gaitutako enpresa.

Kontratazio-mahaiak, maiatzaren 17an bildurik, aho batez erabaki du **kontratazio-organoari honako ERABAKI hau hartzeko proposatzea:**

IKUSI DA lizitazio honetara balio osoz aurkeztutako bi eskaintzek lortutako puntuazioa

	Eskaintza ekonomikoa	Txartelen kopurua handitzea	Prestakuntza	Zelulen bermea + elementuak	Emateko epea	Azken puntuazioa
BÁSCULAS RIOJA, S.L,	27.225,00 € BEZ barne	200 Unit.	5 ordu	4 +2 urte	8 aste	90 puntu
	60 puntu	15 puntu	10 puntu	5 puntu	0 puntu	
ELIAS JADRAQUE, S. A	28.132,50 € BEZ barne	200 Unit.	4 ordu	4+3	6 aste	93,06 puntu
	58,06 puntu	15 puntu	10 puntu	5 puntu	5 puntu	

LEHENENGOA.- AIARAKO KUADRILLAKO IBILGAILUAK PISATZEKO BASKULA ELEKTRONIKO TINKO BATEN HORNIDURA, INSTALAZIOA ETA EGIAZTAPENA EGITEKO KONTRATUA (ID-espedientea 728 2021/4/S02.01.03.02), izandako puntuazio osoaren arabera, **ELÍAS JADRAQUE, S.A.** enpresari **HOGETA ZORTZI MILA, EHUN ETA HOGETA HAMABI MILA KOMA BERROGEITA HAMAR (28.132,50 €) BEZ barne.**

Informazioa eta eztabaida bukatuta, aho batez **ERABAKI DA AKORDIO HAU** hartzea :

IKUSI DA lizitazio honetara balio osoz aurkeztutako bi eskaintzek lortutako puntuazioa

	Eskaintza ekonomikoa	Txartelen kopurua handitzea	Prestakuntza	Zelulen bermea+elementuak	Emateko epea	Azken puntuazioa



BÁSCULAS RIOJA, S.L,	27.225,00 € BEZ barne	200 Unit.	5 ordu	4 +2 urte	8 aste	90 puntu
	60 puntu	15 puntu	10 puntu	5 puntu	0 puntu	
ELIAS JADRAQUE, S. A	28.132,50 € BEZ barne	200 Unit.	4 horas	4+3	6 aste	93,06 puntu
	58,06 puntu	15 puntu	10 puntu	5 puntu	5 puntu	

LEHENENGOA.- AIARAKO KUADRILLAKO IBILGAILUAK PISATZEKO BASKULA ELEKTRONIKO TINKO BATEN HORNIDURA, INSTALAZIOA ETA EGIAZTAPENA EGITEKO KONTRATUA (ID-espedientea 728 2021/4/S02.01.03.02), izandako puntuazio osoaren arabera, ELÍAS JADRAQUE, S.A. enpresari HOGEITA ZORTZI MILA, EHUN ETA HOGEITA HAMABI MILA KOMA BERROGEITA HAMAR (28.132,50 €) BEZ barne.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea.

8.- EUSKO JAURLARITZAREN TURISMO-LAGUNTZAK ETA DFA TURISMO-INBERTSIOAK JASOTZEKO ESKARIAREN BERRI EMATEA.

Ghiro jaunak jakinarazi du maiatzaren 7an, ostiralean, laguntza eskatu zitzaiola DFARI inbertsio turistikorako honako kontzeptu hauengatik:

KONTZEPTUA	DIRULAGUNTZAREN OINARRIA	DIRULAGUNTZA
INBERTSIOAK AKTIBO TINKOETAN	38.604,84	30.883,87

HORNITZAILEA	ESKAINTZAK		AURREKONTUA
ZHURA DESIGN	Z21275	06/05/2021	16.108,13 €
ADI GRAFIK	185	06/05/2021	14.849,12 €
ADI GRAFIK	184	06/05/2021	4.586,21 €
BAIMEN	22215	07/05/2021	475,00 €
AIARA INFORMÁTICA	20	07/05/2021	2.586,38 €
			38.604,84 €

Eusko Jaurlaritzari laguntza eskatu zaio honako kontzeptu hauengatik:



	AURREKONTUA	EUSKO JAURLARITZARI ESKATUTA	AURREIKUSITA AFA	KUADRILLA
Laguntza teknikoa	35.719,20 €	21.431,52 €	14.287,68 €	0,00 €
Basquemountains	7.260,00 €	3.630,00 €	0,00 €	3.630,00 €
Kode Etikoa	15.488,00 €	7.680,00 €	4.000,00 €	3.808,00 €
Sareen barruan egotea	1.000,00 €	500,00 €	0	500,00 €
Ikustaldi antzeztuak	15.400,00 €	7.700,00 €	4.928,00 €	2.772,00 €
Txakoli ibilbidea	49.870,30 €	24.935,15 €	24.896,00 €	39,15 €

124.737,50 € 65.876,67 € 48.111,68 € 10.749,15 €

9.- HALA BADAGOKIO, ONESTEA BASQUEMOUNTAINS-EN URTEKO AURREKONTUA.

Ghiro jaunak adierazi duenez, laguntzen eskabidearen barruan sartu da barruko turismoa sustatzeko eta kuadrillako erreserba-zentrala kudeatzeko Basquemountains-ekin egiten den urteko lankidetzaz, eta IV. ERANSKIN bezala sartu da 2021erako proposamena.

Informazioa eta eztabaida bukatuta, aho batez **ERABAKI DA AKORDIO HAU hartzea :**

IKUSI DA Basquemountains-ekin elkarlanean jarraitzeko interesa dagoela barruko turismoa sustatzeko.

IKUSI DA 432 227992 partidaren kreditu nahikoa dagoela.

ERABAKI DA:

LEHENENGOA.- Basquemountains-en urteko lankidetzaz onestea, aurreztertutako aurrekontuaren arabera, **INBOOST TOURISM KO SL** enpresari (IFK: B95717898). Aurrekontua ZAZPI MILA BERREHUN ETA HIRUROGEI eurokoa da (7.260,00 €), BEZ barne.



10.- ARABA MARKET PROIEKTUAREN BERRI EMATEA.

Ghiron jaunak jakinarazi du informazio hau bidali dela:

Hainbat bileratan eta Tokiko Gobernu Batzarrean **ARABA MARKET** izeneko proiektuari buruzko informazioa eman da; proiektu hori Arabako Kuadrillek proposatuta Foru Aldundia ari zen garatzen. Arabako landa-ingurunekeo negozioetarako plataforma digital bat da, doako erakusleihen bat izanik helburu hauek dituen:

- Arabako landa-eremuko jarduera ekonomikoa garatzen duten negozioei eta profesionalen sustapen-kanal digital bat ematea, **salmentak handitzeko ikusgaitasun eta aukera gehiago izan ditzaten.**

- Arabako landa-bizitzaren abantailei buruz sentsibilizatzea

- **Araba landatarra sustatzea, ekimenak ateratzeko eta lan egiteko ingurune gisa.**

- Erronka demografikoari aurre egitea

Beraz, plataforma hau **Kuadrilla bakoitzeko negozio guztiak** inskribatuta egon daitezzen eta ikus daitezzen pentsatuta dago, eta, alde horretatik, beharrezkoa da tresna hori eskualdean ahalik eta gehien ezagutaraztea, establezimendu, profesional eta negozio txiki guztiak bertan alta ematera bultzatuz.

Bestalde, merkataritza-erakusleihen irteera aprobetxatuz eta hura sustatzeko, AFAk **bonu-deskontu kanpaina** bat jarriko du abian, Araba Market-i atxikitako zenbait establezimendutan kontsumoa sustatzeko (mota guztietako saltokiak, tabernak, jatetxeak, gida turistikoak, farmaziak, estankok, liburu-dendak, ile-apaindegiak, osasungintzako profesionalak, artisauak, etab.). www.arabamarket.eus webgunean bonu-kanpaina honi buruzko informazio zehatza dago (noiz eta nola egingo den, zein saltokik har dezaketen parte...).

Kanpaina honetan parte hartu nahi duten establezimenduek, ARABA MARKETen alta eman ondoren, bonu-programa honi atxikitzeko eskatu beharko dute formulario elektronikoan.

Gure kasuan, **Laudioko eta Amurrioko** negozioek ez dute bonurik izango, Foru Aldundiak biztanle-kopuruan muga jartzen baitu.

Kuadrillatik informazio pertsonalizatua bidaliko diegu posta elektronikoaren bidez harremanetan ditugun establezimendu eta negozioei. Baina ahalik eta zabalkunderik handiena eman beharko litzaioke ARABA MARKET PLATAFORMA-ERAKUSLEIHORI, ahalik eta negozio gehienek parte har dezaten.



ARABA MARKET plataformaren negozioetarako prestatu dugun informazioa erantsi dugu: kartela eta liburuxka. Material inprimatua helaraziko dizuegu zabaltzeko.

Informazio hori eskualdeko negozio, enpresa eta autonomoen artean zabaltzeko eskatzen dizuegu.

Halaber, "PESETRACK" proiektuaren berri eman du. Arabako Dendak elkarteak sustatu du proiektu hori. Horren bidez, pezetak eman eta euren ordeztako bonoak eman nahi dira eskualdeko saltokietan.

11.- 2021 URTERAKO KOMUNIKAZIO- ETA PUBLIZITATE-PROPOSAMENA ONESTEA, HALA BADAGOKIO.

Ghiro jaunak esan du ezin izan dituela proposamenak berrikusi eta hurrengo Batzarrean horien berri emango duela.

12.- MARIO ORTIZ PANIEGOREN ERREKLAMAZIO JUDIZIALA.

Maiatzaren 13an jaso da Mario Ortiz Paniegok Lan arloko Epaitegian adiskidetze ekitaldiaren ondoren jarritako demanda. Epaiketa 2022ko urtarrilaren 31n egingo da.

Puntu honetara iritsita, kuadrillaburuak azaldu du gai zerrendan beste puntu bat sartzeko premia. Aho batez onartu da, eta haxe da:

-Laudioko garbigunean baskula berria eskuratzeko, Kuadrillak eta Arabako Foru Aldundiak sinatutako hitzarmena onestea.

13.- LAUDIOKO GARBIGUNEAN BASKULA BERRIA ESKURATZEKO, KUADRILLAREN ETA ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ARTEKO HITZARMENA ONESTEA.

Castresana andreak jakinarazi du Laudioko garbiguneko baskula finantzatzeko 4.000,00 euroko lankidetzaz hitzarmena jaso dela. Horren zirriborroa azaldu da.

Analisia egin eta zalantza eta azalpenak eman ondoren, aho batez **ERABAKI DA AKORDIO HAU hartzea** :

LEHENENGOA.- Laudioko garbigunean baskula berria eskuratzeko Arabako Foru Aldundiak bidalitako hitzarmena sinatu dadila onestea.



14.- ESKAERAK ETA GALDERAK

Ez da ezer aurkeztu.

Eta beste gairik ez dagoenez, bilkura amaitutzat eman da goian adierazitako eguneko **14:13ak** direnean. Era berean, presidenteak eta neuk, aldi baterako idazkariak, izenpetu dugu akta hau, eta neuk idatzitako guztia egiaztatzen dut.

KUADRILLAKO PRESIDENTEA: ENCINA CASTRESANA ASTARLOA.

**KUADRILLAKO ALDI BATERAKO IDAZKARIA: GIANFRANCO GHIRO
ALONSO**

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA
DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE**